

EKINTZA ESTRATEGIKOEI BURUZKO DEIALDIA

2009ko MEMORIA

BETETZEKO LAGUNTZA ESKULIBURUA

Aurkezpena

Eskuliburu honetan aurkeztu dugu Enpresei bideratutako Prestakuntza Plana justifikatzeko memoriak izan beharreko egiturari eta edukiei buruzko informazioa. (Ekintza Estrategikoei buruzko Deialdia)

Agiri honek aplikazio informatikoaren egiturari jarraituz memoria nola bete deskribatzen du.

0. SARRERA.

Memoria betetzea da onartutako prestakuntza-ekintzak gauzatzeko izandako gastuak beharrezko dokumentazioaren bidez egiaztatu behar direneko fasea; parte-hartzaileei, egutegiei, prestatzaileei eta abarri buruzko informazioa bete ondoren egiten da, **“Asistentziak”** modulutik.

Segidan, atal guztietan sartzeko eta prestakuntza-plana gauzatzeari buruzko informazio guztia egoki betetzeko modua zehazten da:

Aplikazioan sartzeko Erabiltzailea eta gakoa sartu ondoren, hurrengo pantaila bistaratuko zaigu; bertan, **“Memoriaren justifikazioa”** atala aukeratu behar dugu:



“Memoriaren justifikazioa” atala lau bloke handitan banatuta dago:

1. Planaren justifikazioa.
2. Ekintzen justifikazioa.
3. Fakturak.
4. Planaren dokumentazioa.

1. PLANAREN JUSTIFIKAZIOA

Asistencias 2009 - Microsoft Internet Explorer

Castellano | Euskera

HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

Esp. Zk.	Títular IFK	Izen Sozjala	Egoera
2009/V1/9999/EN	A01012822	CAMIONES LA VITORIANA	Irekita

Hobetuz - Convocatoria 2009/2009 Deialdia 2009/V1/9999/EN 18/5/2010 11:18:11

PLANAREN DATUAK:

Datos del Plan - Diálogo Web

> Planaren Datuak

Esp. Zk. : 2009/V1/9999/EN **Egoera:** Pendiente
Títularra: CAMIONES LA VITORIANA

ENPRESAREN HARREMANETARAKO PERTSONA

Izen-Abizenak:
 Kargua:
 Tfnoa: Faxa:
 EMail:


HITZARMEN KOLEKTIBOA


Ordu Kop.:


BEZarekiko EGOERA

% 100 murrizteko eskubidearekin
 Salbuetsiak edo ez-lotua
 Prorrata

P. Orokorra
 P. Berezia

 **Harremanetarako pertsonari buruzko datuak:** Hobetuz atal horretan identifikatuta pertsonarekin harremanetan jarriko da, argibideren bat edo memorian aurkeztutako dokumentazioari gehitu beharreko dokumentazioren bat behar badu.

 **Hitzarmen kolektiboa:** Enpresa arautzen duen hitzarmen kolektiboa eta bertan ezarritako ordu kopurua adierazi beharko duzu.

 **BEZari buruzko egoera:** Erakunde titularrak BEZari dagokionez duen egoera adierazi behar da. Egiten den aukeraren arabera, Hobetuzi dokumentazio gehigarria aurkeztu behar izango zaio.

- Erakunde titularrak BEZaren % 100 kentzeko eskubidea ematen duten eragiketak egiten baditu: Kontzeptu hori ezin da diruz laguntzeko moduko partida gisa egotzi.
- Egiten dituen eragiketa guztiak BEZetik salbuetsita badaude edo BEZik ez badute. Aurkeztutako fakturretan jasandako BEZ guztia kostu finantzarri gisa egotziko da.
- Kenkarietarako eskubidea ematen duten eragiketak eta BEZetik salbuetsita dauden eragiketak egiten baditu (Hainbanaketa): Kostu gisa jasandako BEZaren zatia, hau da, kenkarirako eskubidea ematen ez duen zatia, kostu finantzarri gisa egotziko da. Ogasunean behin betiko hainbanaketatzat hartutako hainbanaketa-ehunekoa erabiliko da. 2008ko gastuetarako, 2009ko BEZaren urteko Aitorpen laburtuaren arabera aplikatuko da. Memoria aurkezten den egunean behin betiko hainbanaketa zein den jakin ezean, 2008ko BEZaren urteko Aitorpen laburtua aintzat hartuta, 2008ko behin betiko hainbanaketa aplikatuko da.



BEZA GASTU GISA EGOZTEN BADA HOBETUZI AURKEZTU BEHAR ZAIZKION DOKUMENTUAK.

- Hainbanaketa orokorra aplikatzen bada: Aurkeztutako azken Aitorpen laburtuaren Eredua.
- Hainbanaketa berezia aplikatzen bada:
 - o Enpresa hainbanaketa bereziko egoeran dagoela adierazteko dagokion Ogasunak egindako komunikazioa.
 - o Kenkari osorako eskubidea ematen duten eragiketen eta salbuetsitako eragiketen identifikazioa. Aurkeztutako fakturak kasu bakoitzarekin lotu. Fakturak oso-osorik eragiketa kengarriekin lotu badaitezke, BEZa ez da kostu finantzarri gisa egotziko. Fakturak salbuetsitako eragiketekin lotu badaitezke, BEZ guztia ez da kostu finantzarri gisa egotziko. Bi eragiketa mota horiek eraginpean hartzen dituzten fakturretarako hainbanaketa orokorra aplikatuko da.
 - o Aurkeztutako azken Aitorpen laburtuaren Eredua.

LEGEZKO ORDEZKARIAK.

Modu lehenetsian, aplikazioak eskaera sinatu zuen legezko ordezkaria adieraziko du. Gogorarazten dizugu, aldaketaren bat egiten bada, ordezkari-lanak egiteko ahalmena notario-ahalordea edo antzeko dokumenturen bat aurkeztuta frogatu behar dela nahitaez.

Beste legezko ordezkari batzuk erantsi ahal izango dituzu (“**Alta**” botoia), baita lehenik sartuta daudenen datuak aldatu (“**Edizioa**” botoia) eta lehen sartutako datuak ezabatu ere (“**Ezabatu**” botoia).

PLANEKO GASTUAK.

Izandako gastuak prestakuntza-plana osatzen duten prestakuntza-ekintzei dagokienez justifikatzen dira. Kudeaketa-kostuak (barnekoak nahiz kanpokoak), aldiz, planari zuzenean egotzi behar zaizkio.

Aurrerago, “**Ekintzen justifikazioa**” atalean, gastuei buruzko atal guztiak nola bete behar diren zehaztuko dugu.

ESTATUKO KREDITU SISTEMA.

Estatuko hobari-sistemak etengabeko prestakuntzarako ematen duen kredituaren kontsumoari buruzko informazioa biltzeko aukera bat txertatu da. Bertan eskatzen dizugun informazioa bete eta/edo erantsi behar duzu; izan ere, diru-laguntzaren azken kalkulua horren arabera izango da.

Botoi hori sakatuta honako aukera hauek emango dizkizun pantaila bistaratuko zaizu:

- EZ da erabili eskuragarri dagoen kreditua.
- Ez duzue langilerik EAetik kanpo; beraz, Fundación Tripartita erakundearen web-orritik eskuratutako kredituaren jakinarazpenaren/saldoaren kopia besterik ez duzu erantsi beharko. Kopiaren beheko ezkerreko aldean Legezko Ordezkararen sinadura eta zigilua jarriko dira. Enpresa Talde bat bada, Planean parte hartutako enpresa bakoitzaren kopia erantsi beharko da.


- EAetik kanpo langileak edukiz gero: EAEko langileentzat erabili den hobaria adierazteaz gain, Fundación Tripartita erakundearen web-orriaren bidez eskuratutako kredituaren jakinarazpenaren/saldoaren kopia besterik ez duzu erantsi beharko. Kopiaren beheko ezkerreko aldean Legezko Ordezkararen sinadura eta zigilua jarriko dira.

ENPRESA TALDE bat bada, Taldea osatzen duen enpresa bakoitzak kontsumitutako kopurua adierazten duen zerrenda erantsi beharko da. Kopuru horren baturak goian ziurtatutako kopurua izan behar du.

EAEko langileentzat eskuratutako kredituaren kalkulua:

- EAEko langileentzat soilik diren ekintza hobarituak: hobaritutako kopuru osoa bilduko da.
- EAEko eta EAetik kanpoko langileentzako ekintza hobarituak: hobaritutako kopurua langile kopuruaren artean hainbanatuko da, betiere EAEko langileei dagokiena soilik idatzita. Hau da, 10 langilerentzako ekintza batean 1.000 euro hobaritu badira, 4 EAetik kanpokoak eta 6 EAEkoak izanik, 600 euroko kopurua idatzi beharko da.

Informazioa sartu ondoren, Memoria inprimatzen duzunean, adierazitako datuak biltzen dituen zinpeko aitortpena inprimatuko da, eta hori ere behar bezala sinatu eta zigilatu beharko duzu.



Estatuko Kreditu Sistema - Diálogo Web

> Estatuko Kreditu Sistema

PRESTAKUNTZARAKO KREDITUAREN KONTSUMOAREKIKO EGOERA ESTATUKO HOBARI SISTEMAK EZARRIA

Ez da erabili Estatuko hobari-sisteman ezarritako etengabeko prestakuntzarako kreditua.

EAetik kanpora ez badago langilerik, kredituaren jakinarazpenaren/saldoaren kopia bat aurkeztu behar da, Tripartita Fundazioaren web-orritik. Aipatu kopia Lege Ordezkaritak sinatua eta behar den bezala zigilatua egongo da, orrialdearen ezkerreko aldean, behealdean.

EAetik kanpora langilerik badago, adierazi 2009ko ekitaldian EAEko langileentzako bakarrik osatutako kreditua Euro (ikusi kalkulu-eskuliburua). Era berean, kredituaren jakinarazpenaren/saldoaren kopia bat aurkeztu behar da, Tripartita Fundazioaren web-orritik. Aipatu kopia Lege Ordezkaritak sinatua eta behar den bezala zigilatua egongo da, orrialdearen ezkerreko aldean, behealdean.

ENPRESA TALDE bat bada, Taldeko enpresa bakoitzak kontsumitu duen zenbatekoa adierazten duen zerrenda bat aurkeztu behar da. Zenbateko horrek gorago ziurtatutako kantitatearekin bat etorri behar du.


DOK. GEHIGARRIA.

Aplikazio honen bidez eskatzen dizkizugun datuak prestakuntza-planaren egiazko gauzatzeari zehatz-mehatz ez dagozkiola baderitzozu, erabil ezazu “DOKUMENTAZIOA GEHIGARRIA” sarbidea, edo, nahi baduzu, beste edozein dokumentu erantsi. Bertan, zure planari dagokion memoria aztertzean zure ustez HOBETUZek kontuan hartu behar duen informazio guztia txertatu ahal izango duzu, baita memoria horretarako justifikatu behar diren berezitasun guztiak ere. Behar bezala deskribatuta geratzen ez diren egoerak argitzeko edo justifikatzeko dokumentu hori erabiltzea gomendatzen dugu.



- “Plantilla Deskargatu” botoiak gure ordenagailuan Word-eko txantiloia kopia bat egiteko aukera ematen digu.
- “Igo txostena” botoiak Word-eko txantiloia Zerbitzarian biltegitratzen du. Txantiloian bildu nahi dugun informazio guztia bete ondoren, programa-aukera hori exekutatu beharko dugu, horixe baita informazio hori guztia HOBETUZi jakinarazteko modua.
- “Editatu txostena” botoiak Word-eko txantiloia berriz behera kargatu gabe aldatzeko aukera ematen du, hau da, aldaketak Zerbitzarian zuzenean gordetzeko aukera ematen digu.

ITXI, AMAITU MEMORIA.




“Ixtea Memoriaren Amaiera” da Memoria egoki justifikatzeko sartu duzun informazio guztia amaitu eta balidatuzat emateko erabiliko duzun azken botoia. Nahitaezkoa den daturen bat falta bada, edo espedientean gorabeheraren bat antzematen bada, ezin izango da memoria “itxi”, eta erabiltzaileari gorabehera horien berri ematen dion pantaila bat bistaratuko da.

OHARRA: Nolanahi ere, “ixtea” onartzen denean, **botoi horrek erabat blokeatuko du memoriaren datuak sartzeko aukera**; beraz, behin betiko itxi baino lehen ziurta ezazu atal guztiak behar bezala bete dituzula.

2. EKINTZEN JUSTIFIKAZIOA

Memorian, "Asistentziak" modulan "BURUTUA" gisa markatu dituzun ekintzak besterik ezin izango dituzu bistaratu, betiere ekintza horiei buruzko datuak beteak badituzu.



Ordena	Izena	Egoera	Hobetuz
1	CONTROLADOR DE MERCANCIAS	Ez burutua	BAI
2	MANIPULACION CARRETILLA ELEVADORA CON SPREADER	Burutua	BAI

Atal behean: Ekintzaren Datuak, Gastuak, Itxi

Hobetuz - Convocatoria 2009/2009 Deialdia 2009/VI/9999/EN 18/05/2010 12:16:53

EKINTZARI BURUZKO DATUAK.

IRAUPENA eremuan emandako informazioa hartuko du aintzat **Hobetuzek**, hau da, **talde guztietako parte-hartzaile guztiak bertan adierazitako ordu kopurua egin dutela hartuko du kontuan**. Den-denek bertan adierazitako orduak egin ez badituzte, justifika ezazu zehatz-mehatz eskura duzun “WORD-EKO TANTILIOIAN”.


Adibidea: ekintzan 10 laguneko 5 taldek parte hartu badute eta parte-hartzaile bakoitzak 40 prestakuntza-ordu jaso baditu, “40 ordu” idatzi behar da, ez 200 edo 2.000 ordu.

Barne-prestakuntzako orduen kopurua eta kanpo-prestakuntzako orduen kopurua bereizi beharko dira, eta prestakuntza-orduak zer motatakoak diren zehaztu behako da.

Ordu presentzialak ikasgelan irakasleek ikasle talde bati jakintza berberak aldi berean emandako prestaketa-orduak dira, irakasleak erabiltzen dituen baliabide didaktikoak edozein izanik ere.

Ordu ez-presentzialak, berriz, parte-hartzaileak bere aukeren arabera ikaskuntza-erritmoak egokitzen dituen prestakuntzako orduak dira, horretarako, prestakuntza-prozesua edozein lekutan egiten dela ere, denbora jakin batean tutore edo irakaslea izanik. Irakaslearen lana hau da: parte-hartzailearen zalantzak argitzea eta aurrerapenak egiten ote dituen egiaztatzea, erabilitako materialetako edukiak osatzeko edo finkatzeko.

Ordu ez-presentzialak barne hartzen badira, prestakuntza mota adierazi behar da (urrunekoa edo teleprestakuntza). Era berean, tutoreak parte-hartzaileekin aritzeko eman dituen orduen kopurua adierazi behar da.



Ekintzaren datuak - Diálogo Web

> Ekintzen Aldaketa

Orden Zk.:

Izena:

Especialitatea:

IRAUPENA

	PRESENTZIAZKOA	EZ PRESENTZIAZKOA	GUZTIRA
BARNEKO PRESTAKUNTZA	<input type="text" value="10"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="10"/>
KANPOKO PRESTAKUNTZA	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="40"/>	<input type="text" value="40"/>
GUZTIRA			<input type="text" value="50"/>

EZ PRESENTZIAZKO FORMAKUNTZA Urruneko Prestakuntza TelePrestakuntza

MOTA:

Adierazi Tutoreak parte-hartzaileei eskaintzeko izan dituen Orduen Kop.:


GASTUAK.

Gastu gehienak prestakuntza-ekintzei dagokienez justifikatuko dira, kudeaketa-kostuak (barnekoak nahiz kanpokoak) izan ezik. Kostu horiek planari dagokionez justifikatuko dira, lehen adierazi dugunez.

PLANARI DAGOZKION GASTUAK.

KUDEAKETA GASTUAK.

Kudeaketa-gastuak prestakuntza-ekimena abian jarri eta garatzeari lotutako gastuak dira, eta enpresako edo enpresatik kanpoko langileek —zerbitzu hori kontratatu bada— zeregin horietan emandako denboraren arabera justifikatuko dira. Kudeaketa-gastuen pantailan sartzeko “Planares justifikazioa” atalean “Gastuak” botoia sakatu behar dugu.



KONTZEPTUA	ESKURATZE-PREZIOA
Barruko kudeaketako kostua:	0,00 <input type="button" value="Egozketak"/>
Kanpoko kudeaketako kostua:	4050,00 <input type="button" value="Egozketak"/>
PLANAREN GASTUAK GUZTIRA:	4050,00

Gastu-kontzeptu hori honako agiri hauen bidez justifikatu ahal izango da:

- Fakturak, zerbitzu hori kanpoko enpresa bati kontratatu baldin bazaio, kanpoko kudeaketa-gastuak.
- Zinpeko aitortpenak, kudeaketa planaren titularra den enpresako langileek egin badute, barneko kudeaketa-kostuak.

Barneko kudeaketa-gastuak.

Prestakuntza-plana enpresa titularreko plantillako langileek —guztiz edo partzialki— kudeatu badute, gastu horri buruzko informazioa “Imputaciones” botoiaren bidez bete beharko duzu. Botoi hori “Barruko kudeaketako kostua” eremuko laukiaren ondoan dago. Sartutako informazioaren arabera, aplikazioak Zinpeko Aitorpena egingo du, ondoren behar bezala sinatu eta zigilatu beharko den aitortpena egin ere.

Erabil ezazu “Alta” botoia barne-kudeatzaileari buruzko datuak sartzeko pantailara iristeko. Datuak zuzenean sartzeko edo kalkuluak egiteko laguntza emango dizun “Calculadora” botoia erabiltzeko aukera duzu.


Hau da eskatuko zaizun informazioa:

- Arduradunaren identifikazioa (izen-abizenak, NAN).
- Egindako zereginen identifikazioa.
- Zeregin horietan emandako orduen kopurua.
- Kudeatzailearen urteko soldata gordina eta enpresaren kargurako gizarte-segurantzako gastua.

Kontzeptu horren arabera egotzi beharreko zenbatekoa kalkulatzeko honako formula hau erabiltzen da:

$[(\text{Urteko soldata gordina} + \text{enpresaren kargurako Giz. Seg.}) / \text{hitzarmen-orduen kop.}] \times \text{emandako orduen kop.}$

Gastu hori zer ekitaldiri dagokion adierazi beharko duzu, hau da, 2008ko edo 2009ko ekitaldiari dagokion. Ondoren, informazio hori zinpeko aitortpenean inprimatuko da. Planean bildutako prestakuntza-ekintza guztiak 2009. urtean hasi izanda ere plana kudeatzeko jarduerak 2008an egin badituzu, 2008. urtea hautatu beharko duzu.



Alta-Edizioa - Diálogo Web

> Barruko kudeaketako gastuak

Edizio Datuak

Izen-Abizenak :

IFZ :

Eskaintako ordu kop. :

Garatutako jarduerak :

Urteko gordina (GS barne) :

Euro egozgarriak :

Detaldia: 2009 2010



Alta-Aldaketa - Diálogo Web

> Kudeaketa gastuen kalkulua

Urteko gordina:


S. G.:

Hitzarmeneko Ordu.kop:

Erabilitako ordu kop:

KALKUKUA:

“Egozpenak” botoiaren bidez pantailan sartu duzun informazio guztia bistartzeko:




Imputaciones - Diálogo Web

Egozpenak

Izena	IFZ	Eskain. ordu kop.	Ariketak	Urteko gordina (GS barne)	Prezioa
JUAN GOMEZ	15996633G	45	ANTOLAKETA	45000,00	145,00


Faktura esleitzean, haren guztizko zenbatekoa egotziko da. Gastu-kontzeptu horri egotzi beharreko zenbatekoa fakturaren guztizko zenbatekoa baino txikiagoa bada, faktura editatu eta zuzeneko zenbatekoa adierazi beharko duzu ("Edizioa" botoia). Egozpen guztien batura fakturaren guztizko zenbatekoa baino handiagoa ez izatea kontrolatuko du.



Egozpen bat egin ondoren erregistro hori ezabatu nahi baduzu, egin ezazu klik haren gainean eta "Ezabatu" botoia erabili. Faktura bat ezabatzeko, "Fakturak" atalera jo beharko duzu. MEMORIA moduluak dituen lau blokeetako bat da.

EKINTZEI DAGOKIEN GASTUAK.

Lehen adierazi dugunez, kudeaketa-gastuak izan ezik, gainerako kontzeptuak ekintzari dagokionez justifikatuko dira. Egin ezazu klik "Ekintzen justifikazioa" atalean eta "Asistentziak" moduluan BURUTUAK gisa markatuta dituzun —parte-hartzaileei, egutegiari eta abarri buruzko informazioa emana duzu— prestakuntza-ekintzak ikusi ahal izango dituzu.



“Gastuak” botoiaren bitartez hurrengo pantailara iritsiko zara, eta, bertan, eraginpean hartuta egon daitezkeen gastu-kontzeptuak izango dituzu. “Egozketa” botoiaren bitartez, kontzeptu bakoitzari dagokion informazioa bete ahal izango duzu.

Planaren gastuak - Diálogo Web

> Ekintzaren Gastuak

AZALPEN	ZENBATEKOA	
A-Kanpoko prestakuntza:	<input type="text" value="450,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
B-Barne prestakuntza:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
C-Material suntsikorra:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
D-Irakaskuntzarako materiala:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
E-Partehartzaileen istripu-asegurua:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
Fa-Instalazioak amortizazioa:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
Fb-Instalazioak alojera:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
Ga-Ekipamenduak amortizazioa:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
Gb-Ekipamenduak alojera:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
H-Partehartzaileen garraioa eta ostatua (14 art.):	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
KOSTU FINANTZAGARRIAK GUZTIRA:	<input type="text" value="450,00"/>	
<hr/>		
J-Partehartzaileen soldatak eta alokairuak:	<input type="text" value="2500,00"/>	
K-Gizarte segurantzaren enpresaren kargura:	<input type="text" value="0,00"/>	
L-Pentsio planak:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
M-Partehartzaileen ostatua, hazkurria eta garraioa (Hatalean aurreikusi ez direnak):	<input type="text" value="0,00"/>	
N-Irakaskuntzako materialak prestatzeko gastuak:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
O-Bestelako kostuak:	<input type="text" value="0,00"/>	<input type="button" value="Egozketa"/>
KOSTU EZ FINANTZAGARRIAK GUZTIRA:	<input type="text" value="2.500,00"/>	
<hr/>		
EKIN.GAST.GUZTIRA:	<input type="text" value="2950,00"/>	

Izandako gastuak bi modutan justifika daitezke: Zinpeko Aitorpen baten bidez edo Fakturen bidez.

Zinpeko Aitorpenak:

Kontzeptu jakin batzuetarako —Barne Prestakuntza; Ekipamenduen Amortizazioa; Instalazioen Amortizazioa; Parte Hartzaileen Soldata eta Lansariak; Enpresaren kargurako Gizarte Segurantzaren; Pentsio-planak; Ostatua, Mantenua eta Joan-etorriak (M); Material didaktikoa prestatzea; eta beste kostu batzuk— aplikazioak, Zinpeko Aitorpena egiteko, datu jakin batzuk eskatuko dizkizu. Ondoren, Zinpeko Aitorpen hori sinatu eta zigilatu eta Hobetuzen aurkeztu beharko duzu, gastua frogatzeko dokumentuak baitira.

B. BARNE PRESTAKUNTZAKO GASTUA

EKINTZA ZK.	BARNE PRESTATZAILEEN IZEN-ABIZENAK	IFZ	URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA (GS BARNE)	EMANDAKO ORDUEN KOP.	EURO EGOZGARRIAK

Fa. INSTALAZIOEN AMORTIZAZIOA (Oharra)

EKINTZA ZK.	ELEMENTU AMORTIZAGARRIAREN IZENA	HORNITZAILEA	IFK	ESKURATZE PREZIOA	ESKURATZE DATA	ERABILPEN IRIZPIDEA (M2/ORDU)	EURO EGOZGARRIAK

Ga. EKIPAMENDUEN AMORTIZAZIOA (Oharra)

EKINTZA ZK.	ELEMENTU AMORTIZAGARRIAREN IZENA	HORNITZAILEA	IFK	ESKURATZE PREZIOA	ESKURATZE DATA	ERABILPEN IRIZPIDEA (ORDUAK)	EURO EGOZGARRIAK

Oharra: Amortizazio gisa adierazten diren kopuruak, nola instalazioei hala ekipamenduei dagokienez, ez dira zergei dagokienez onartzen direnak baino handiagoak izango (zerga-taulek adierazitako urteko gehieneko amortizazio-koefizientearen arabera kalkulatuak). Egozpenak dagokion aldiari doituiko zaizkio. Gastua leasing-eko eragiketa baten bitartez justifikatze bada, egotzitako kostuan ez dira barne hartuko banku-gastuak, ezta zergak ere. Halaber, kostu hori ez da errentatutako ondasunaren merkataritza-balio garbia baino handiagoa izango.

J. PARTE HARTZAILEEN SOLDATAK ETA LANSARIAK

EKINTZA-ZK.	EURO EGOZGARRIAK

K. ENPRESAREN KARGURAKO GIZARTE SEGURANTZA

EKINTZA-ZK.	EURO EGOZGARRIAK

L. PENSIO PLANAK

EKINTZA-ZK.	URTEKO EKARPENA	ONURADUNEN KOP.	EURO EGOZGARRIAK

M. OSTATUA, MANTENUA ETA JOAN-ETORRIAK

EKINTZA-ZK.	EURO EGOZGARRIAK

N. MATERIAL DIDAKTIKOAK PRESTATZEKO GASTUAK

EKINTZA ZK.	PRESTATZAILEEN IZEN-ABIZENAK	EMANDAKO ORDUEN KOP.	URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA (GS BARNE)	EURO EGOZGARRIAK

O. BESTE GASTU BATZUK

EKINTZA-ZK.	GASTUAREN DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	GASTUA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTUAK	EURO EGOZGARRIAK

Kasu guztietan, Titularrak gastu-egozpen horiek eragin dituzten dokumentuak (nominak, TC2, fakturak, etab.) HOBETUzi aurkezteko moduan izango ditu.

Fakturak.

1. Fakturak eta gastuak frogatzeko beste dokumentuak orijinalaren fotokopia arruntak izango dira. Mesedez, egiazta ezazu aurkezten dituzun fotokopiak kalitate onekoak direla (garbi inprimatuta, dokumentu osoa: IFK, data, etab.). HOBETUZek faktura orijinalak aztertu ahal izango ditu, eta Titularrari eskatu ahal izango dizkio edo Titularraren lokalean aztertu, beharrezkotzat jotzen badu.

HOBETUZek ez ditu faktura egokitzat joko gutxieneko datu hauek biltzen ez dituztenak:

- Faktura-zenbakia, eta, hala badagokio, serie-zenbakia.
 - Faktura egin den eguna.
 - Faktura egin duenaren izen-abizenak eta IFZ / sozietatearen izena eta IFK, baita helbidea ere.
 - Faktura jasoko duenaren izen-abizenak eta IFZ / sozietatearen izena eta IFK, baita helbidea ere.
 - Fakturatutako kontzeptuen deskribapena.
2. Kanpoko-gastuak ordaindutako fakturen bitartez justifikatuko dira beti.
 3. Ordaintzeke dauden fakturak memoria jasotzen duen unean onartuko ditu HOBETUZek; hala ere, "behin betiko likidazioaren ondorengo 20 egutegi-egunetan titularrak laguntzari dagozkion ordainketen ordainagiri orijinalak edo haien fotokopiak aurkezteko moduan egon behar du", deialdian zehazten denari jarraiki.
 4. Fakturretan edo gastuak frogatzeko aurkezten diren bestelako dokumentuetan argi eta garbi agertuko da zer kontzepturi dagozkion. Adibidez:
 - Kanpo-prestakuntzako fakturretan, honako datu hauek zehaztu behar dira: prestakuntza-ekintzaren izena, emandako orduen kopurua, taldeak, noiz egin den.
 - Alokairuen fakturretan, kontzeptua eta alokairu-data zehaztuko da.
 - Material didaktiko eta suntsigarriko fakturretan, kontzeptuak eta kopuruak zehaztuko dira.

Kanpo-prestakuntzako fakturen adibide gisako eredu.

FAKTURA EGIN DUENAREN DATUAK (Sozietatearen izena/izen-abizenak; IFK/iFZ; Sozietatearen helbidea)	
FAKTURA JASOKO DUENAREN DATUAK (Sozietatearen izena/izen-abizenak; IFK/iFZ; Sozietatearen helbidea)	
FAKTURA ZK.	
FAKTURA EGIN DEN EGUNA	
FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONZEPTEUAK	ZENBATEKOA
Honako hauek adieraziko dira: prestakuntzako ekintzaren/ekintzen izena, zenbat orduko iraupena izan duten, prestakuntza jaso duten taldeen eta parte hartzaileen kopurua, eta zer alditan egin den/diren.	X
GUZTIRA	X
BEZA (HALA BADAGOKIO)	X
FAKTURAREN GUZTIZKOA	X
ORDAINTZEKO MODUA	

Kanpoko zerbitzu orokorren fakturen adibide gisako eredu.

Erakunde bakarrari kontratatutako eta hainbat kontzeptu —prestakuntza ematea, material didaktikoa, material suntsigarria, alokairuak, kudeaketa, etab.— barnean hartzen dituzten zerbitzuetarako.

FAKTURA EGIN DUENAREN DATUAK (Sozietatearen izena/izen-abizenak; IFK/iFZ; Sozietatearen helbidea)	
FAKTURA JASOKO DUENAREN DATUAK (Sozietatearen izena/izen-abizenak; IFK/iFZ; Sozietatearen helbidea)	
FAKTURA ZK.	
FAKTURA EGIN DEN EGUNA	
FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONZEPTEUAK	ZENBATEKOA
Prestakuntzako ekintzari/ekintzei dagokionez/dagokienez: Prestakuntzako ekintzaren/ekintzen izena, zenbat orduko iraupena izan duten, prestakuntza jaso duten taldeen eta parte hartzaileen kopurua, eta zer alditan egin den/diren.	X
Material didaktikoa: Deskribapena eta fakturatutako aleen kopurua.	X
Material suntsigarria: Deskribapena eta fakturatutako aleen kopurua.	X
Alokairuak: Fakturatutako elementuen eta/edo instalazioen identifikazioa.	X
Kudeaketa.	X
GUZTIRA	X
BEZA (HALA BADAGOKIO)	X
FAKTURAREN GUZTIZKOA	X
ORDAINTZEKO MODUA	

Prestakuntza Planari buruzko memorian aurkezten diren fakturak identifikatzeko, gastu-kontzeptu bakoitzerako honako informazio hau bete beharko da:

A. KANPO PRESTAKUNTZA

EKINTZA ZK.	FAKTURA ZK.	HORNITZAILEA	FAKTURAREN DATA	EURO EGOZGARRIAK

C. MATERIAL SUNTSIGARRIA

EKINTZA ZK.	FAKTURA ZK.	HORNITZAILEA	FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	FAKTURAREN DATA	EURO EGOZGARRIAK

D. MATERIAL DIDAKTIKOA

EKINTZA ZK.	FAKTURA ZK.	HORNITZAILEA	FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	FAKTURAREN DATA	EURO EGOZGARRIAK

E. PARTE HARTZAILEEN ISTRIPU ASEGURUA

EKINTZA ZK.	POLIZA ZK.	ASEGURU ENTITATEA	EURO EGOZGARRIAK

F. b. INSTALAZIOEN ALOKAIRUA

EKINTZA ZK.	FAKTURA ZK.	ERRENTATZAILEA	FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	FAKTURAREN DATA	EURO EGOZGARRIAK

G. b. EKIPAMENDUEN ALOKAIRUA


EKINTZA ZK.	FAKTURA ZK.	ERRENTATZAILEA	FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	FAKTURAREN DATA	EURO EGOZGARRIAK

H. PARTE HARTZAILEEN GARRAIOA ETA OSTATUA




EKINTZA ZK.	FAKTURETAN SAR DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK	EURO EGOZGARRIAK

Aplikazioan datu ekonomikoak sartzeko, egin ezazu klik “Egozketa” botoian. Justifikatu behar duzun kontzeptuaren lerro bereko eskuineko aldean dago. Funtzionamendua planari dagozkion gastuei buruzko datuak betetzeko zehaztu den bera da.

- Gastua Zinpeko Aitorpen bidez justifikatzen bada, “Alta” botoiaren bidez, beharrezkoa den informazioa sartu behar duzun pantaila bistaratuko zaizu.




- Gastua fakturen bidez justifikatzen bada, faktura bakoitzerako honako ibilbide hau egin beharko duzu: “Facturak Justif.” >> “Facturak” >> “Alta”.



Aplikazioak faktura guztia justifikatzen ari zaren kontzeptuari egozten dio. Guztizko zenbatekoa kontzeptu horri ez badagokio, faktura editatu beharko duzu (aldatu beharreko erregistroaren gainean jarrita) eta “Edizioa” botoia sakatu.

Gastu jakin batzuetan faktura egozteak dakarten kontzeptuak zehaztu beharko dira, hala nola material suntsigarria eta didaktikoa. Beharrezkoa bada, alda ezazu zenbatekoa eta eskuineko botoi berdea sakatu; testu-koadro bat bistaratuko duzu.







Ondoren ekintza eta gastu-kontzeptu guztiei egozteko faktura guztiei alta eman nahi badiezu, "Fakturak" aukera erabili behar duzu.


Aukera horren bidez fakturak aldatu eta ezabatu ahal izango dituzu. Hala ere, aplikazioak zenbatekoa aldatzen diegun fakturen egozpenen balioa zenbateko berriaren baliokidea edo txikiagoa izatea kontrolatuko du, baita ezabatu nahi ditugun fakturek egozpenik ez izatea ere.

NOLA LANDU AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.


KONTZEPTUAK		Zer dokumentu erabiltzen diren kalkuluetarako	Nola kalkulatu	Zer aurkeztu egiaztagiri gisa HOBETUZen
A. KANPO PRESTAKUNTZA (Prestakuntza-ekintzak)	ENPRESA (Kontsultoretza-bulegoa, Prestakuntza Zentroa, etab.)	Fakturak	Fakturaren guztizkoa edo guztizkoari dagokion zatia egotzi, prestakuntza-ekintza bat baino gehiago biltzen baditu.	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura zehatza (fotokopia arrunta). - Faktura zehatza ez bada >>>Zerbitzu emateari buruzko kontratua + Hornitzailearen Eranskina edo faktura. - Dagokion egozpena bilduta duen/duten faktura/k.
	PROFESIONAL INDEPENDENTEA	Fakturak	Fakturaren guztizkoa edo guztizkoari dagokion zatia egotzi, prestakuntza-ekintza bat baino gehiago biltzen baditu.	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura zehatza, PFEZari dagokion atxikipen eta guzti (fotokopia arrunta). - Faktura zehatza ez bada >>>Zerbitzu emateari buruzko kontratua + Hornitzailearen Eranskina edo faktura. - Dagokion egozpena bilduta duen/duten faktura/k.
B. BARNE PRESTAKUNTZA		TC2-a eta Nominak. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.	Kostuak egozteko, emandako orduen hitzarmenean ezarritakoekiko proportzioa egingo da.	<ul style="list-style-type: none"> - Zinpeko aitortpena, bertan prestatzaileen identifikazioa, haien urteko soldata-kostua, emandako orduak eta euro egozgarriak bilduta. <p style="text-align: right;">✍ ... 1. adibidea</p>
C. MATERIAL SUNTSIGARRIA		Fakturak	Kostuak ekintza bakoitzean erabilitako material suntsigarriaren proportzioan egotzi.	<ul style="list-style-type: none"> - Biltegiaren arabera lan eginez gero>>>berritze-fakturak - Dagokion egozpena bilduta duen/duten faktura/k.
D. MATERIAL DIDAKTIKOAK		Fakturak	Kostuak ekintza bakoitzean erabilitako material didaktikoaren proportzioan egotzi.	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura zehatzak (fotokopia arrunta). - Dagokion egozpena bilduta duen/duten faktura/k.

KONTZEPTUAK		Zer dokumentu erabiltzen diren kalkulueterako	Nola kalkulatu	Zer aurkeztu egiaztagiri gisa HOBETUZen
E. <u>PARTE HARTZAILEEN ISTRIPU ASEGURUA</u>		Polizak	Fakturaren guztizkoa egotzi poliza prestakuntza-ekintzarako berariaz kontratatu bada; edo emandako orduen kopuruaren proportzioan, aseguruua orokorra bada.	<ul style="list-style-type: none"> – Prestakuntza-ekintzarako parte-hartzaileentzat berariaz kontratatutako aseguru-polizak. – Enpresak kontratatutako poliza orokorra, dagokion egozpena adierazita.
F. <u>INSTALAZIOAK</u>	ALOKAIRUA	Fakturak	Fakturaren guztizkoa egotzi, alokairua prestakuntza-ekintzarako berariaz kontratatu bada. Edo ekintzen ordu kopuruari dagokion proportzioan, alokairuaren iraupena prestakuntza-ekintzarena baino luzeagoa bada.	<ul style="list-style-type: none"> – Faktura zehatza (fotokopia arrunta). – Alokairualdia prestakuntza-ekintzen iraupena baino luzeagoa bada>>>errentamendu-kontratua eta ereduako faktura. – Dagokion egozpena bilduta duen/duten faktura/k.
	AMORTIZAZIOA	Fakturak. Amortizazioko zerga-etaulak. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua. Erabilitako m²-ak.	Kostuak emandako orduen kopuruaren proportzioan egotzi.	<ul style="list-style-type: none"> – Zinpeko aitortpena, instalazioaren identifikazioa, hornitzailea, IFK, prezioa eta eskuratzeko-data, erabilaldia eta euro egozgarriak bilduta. <p style="text-align: right;">✍ ... 2. adibidea</p>
G. <u>EKIPAMENDUAK</u>	ALOKAIRUA	Fakturak.	Fakturaren guztizkoa egotzi, alokairua prestakuntza-ekintzarako berariaz kontratatu bada; edo emandako orduen proportzioan, alokairuaren iraupena luzeagoa bada.	<ul style="list-style-type: none"> – Faktura zehatza (fotokopia arrunta).
	AMORTIZAZIOA	Fakturak. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua. Amortizazioko zerga-etaulak.	Kostuak egozteko, emandako orduen hitzarmenean ezarritakoekiko proportzioa egingo da.	<ul style="list-style-type: none"> – Zinpeko aitortpena, ekipamenduaren identifikazioa, hornitzailea, IFK, prezioa eta eskuratzeko-data, erabilaldia eta euro egozgarriak bilduta. <p style="text-align: right;">✍ ... 3. adibidea</p>

KONTZEPTUAK	Zer dokumentu erabiltzen diren kalkulueterako	Nola kalkulatu	Zer aurkeztu egiaztagiri gisa HOBETUZen
H. <u>PARTE HARTZAILEEN GARRAIOA ETA OSTATUA</u>	Autopista-txartelak, hotel eta jatetxeetako fakturak, etab.	Gastu guztiak egotzi.	<ul style="list-style-type: none"> – Industria-inbertsio aparteko eta/edo estrategikoek dakartzaten prestakuntza-ekintzak direla justifikatzeko dokumentuak, betiere ekintza horietarako EAEn prestakuntza-eskaintzarik ez badago. – Garraio-txartelak, autopista-txartelak, hotel eta jatetxeetako fakturak, etab.
J. <u>SOLDATAK ETA LANSARIAK</u>	Nominak. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.	Kostuak lanaldiaren barnean egindako prestakuntza-orduen (edo enpresari kostua eragiten dioten orduen) proportzioan egotzi, hitzarmenean ezarritakoei dagokienez.	<ul style="list-style-type: none"> – Lan-ordutegian emandako prestakuntzaldiaren truke parte-hartzaileek izandako soldata eta lansarien zenbatekoari buruzko zinpeko aitorpena. <p style="text-align: right;"> ... 5. adibidea</p>
K. <u>ENPRESAREN KARGURAKO GSA</u>	Urteari dagokion TC2-a. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.	Kostuak lanaldiaren barnean egindako prestakuntza-orduen (edo enpresari kostua eragiten dioten orduen) proportzioan egotzi, hitzarmenean ezarritakoei dagokienez.	<ul style="list-style-type: none"> – Lan-ordutegian emandako prestakuntzaldian parte-hartzaileei dagokien gizarte-segurantzaren zenbatekoari buruzko zinpeko aitorpena. <p style="text-align: right;"> ... 6. adibidea</p>
L. <u>PENTSIO PLANAK</u> Gizarte Segurantzaren pentsioen osagarriak diren pentsioetarako (erretiroa, baliaezintasuna, heriotza) Enpresak egiten dituen ekarpenak.	Pentsio-planetara urtean bideratutako kopurua. Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.	Kostuak lanaldiaren barnean egindako prestakuntza-orduen proportzioan egotzi, hitzarmenean ezarritakoei dagokienez.	<ul style="list-style-type: none"> – Lan-ordutegian emandako prestakuntzaldian parte-hartzaileen pentsio-planetarako (parte-hartzaileen kopurua zehaztuta) enpresak egindako ekarpenaren zenbatekoari buruzko zinpeko aitorpena. <p style="text-align: right;"> ... 7. adibidea</p>
M. <u>GARRAIOA, OSTATUA ETA MANTENUA</u>	Garraio-txartelak, autopista-txartelak, hotel eta jatetxeetako fakturak, etab.	Ekintzari atxikitako gastu guztiak egotzi.	<ul style="list-style-type: none"> – Parte-hartzaileen ostatuari, mantenuari eta joan-etorriei dagozkien gastuen zenbatekoari buruzko zinpeko aitorpena. <p style="text-align: right;"> ... 8. adibidea</p>

KONTZEPTUAK	Zer dokumentu erabiltzen diren kalkulueterako	Nola kalkulatu	Zer aurkeztu egiaztagiri gisa HOBETUZen
<p><u>N. MATERIAL DIDAKTIKOAK PRESTATZEKO GASTUAK</u></p> <p>Enpresak bere material didaktikoak egiten dituen izaten dituen gastuak dira.</p>	<p>Nominak eta TC2-a.</p> <p>Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.</p>	<p>Kostuak material didaktikoa prestatzeko emandako orduen kopuruaren proportzioan egotzi, betiere hitzarmenean ezarritako orduei dagokienez.</p>	<p>– Izan diren kostuei buruzko zinpeko aitorpena, kostuak jardueraren arabera banakatuta. Kopuru jakin batetik aurrera, HOBETUZek material didaktikoa entregatzeko eskatu ahal izango du.</p> <p style="text-align: right;"> ... 9. adibidea</p>
<p><u>O. BESTE BATZUK</u></p> <p>Aurreko ataletan bildu ez den eta prestakuntza-planari lotutako beste edozein gastu.</p>	<p><i>Behar adina justifikazio-dokumentu</i></p>		

Prestakuntza Planari dagokionez

<p><u>I. KUDEAKETA GASTUAK</u></p>	<p>KANPO KUDEAKETA <i>(Prestakuntza Plana, etab., kudeatzeko kontratatutakoa)</i></p>	<p>Fakturak.</p>	<p>Fakturaren guztizkoa egotzi; edo dagokion zatia, fakturan beste kontzeptu batzuk bildu badira.</p>	<p>– Faktura zehatza (fotokopia arrunta).</p> <hr/> <p><i>Prestakuntza-ekintzak prestatzeko eta/edo kudeatzeko kostuak justifikatzeko:</i></p> <p>– Zinpeko aitorpena, honako hauek identifikatuta: barne-prestatzaileak edo kudeaketa-arduradunak, egindako jarduerak, bakoitzak zeregin horietan emandako orduen kopurua eta euro egozgarriak.</p> <p style="text-align: right;"> ... 4. adibidea</p> <p><i>Beste kudeaketa-gastu batzuk:</i></p> <p style="text-align: center;">Behar adina justifikazio-dokumentu</p>
	<p>BARNE KUDEAKETA</p>	<p>TC2-a eta Nominak.</p> <p>Hitzarmenean ezarritako orduen kopurua.</p>	<p><i>Prestakuntza-ekintzak prestatzeko eta/edo kudeatzeko kostuak:</i></p> <p>Kostuak hartarako emandako orduen kopuruaren proportzioan egotzi, betiere hitzarmenean ezarritakoei dagokienez.</p>	

1. adibidea

“FORMACIÓN, SA” enpresak titularizatutako planaren 2. prestakuntza-ekintza bertako langile batek eman du. Ekintzak 30 orduko iraupena izan du eta 2 aldiz egin da (2 talde).

Kalkulua.

Emandako orduen kop. = 30 h. (ekintzaren iraupena) x 2 (egin diren taldeen kop.) = 60 ordu.

Prestatzailearen urteko lansari gordina	25.543
Enpresaren kargurako gizarte segurantzak	8.128
URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	33.671 €

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da. (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, langile hori kontratatuta edukitzeagatik ordu bakoitzeko kostua urteko lansari-kostu gordinaren eta hitzarmen-orduen arteko zatiketa izango da:

$$33.671 : 1.750 = 19'24 \text{ euro/ordu}$$

Prestatzaileak 60 ordu eman dituenaz, prestakuntza-ekintza horri barne-prestakuntza gisa egotzi beharreko kopurua hau da:

$$19'24 \times 60 = 1.154'4 \text{ euro}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

B. BARNE PRESTAKUNTZAKO GASTUA

EKINTZA ZK.	BARNE PRESTATZAILEEN IZEN-ABIZENAK	IFZ	URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	EMANDAKO ORDUEN KOP.	EURO EGOZGARRIAK
2	Miren Lasa Andrés		33.671	60	1.154 '4

2. adibidea.

2. adibide honetan, enpresan bertan, “lan-eremua” izan ohi den leku batean, egiten den prestakuntza-ekintza baten kasua planteatzen da. Horregatik, dagozkion egozpenak honako hauen arabera egiten dira:

- **Erabilitako m2-ak>>>** Prestakuntza-ekintzan erabilitako espazioari dagokion amortizazioa kalkulatzeko da.
- **Hitzarmen-orduen kop.>>>** Gainera, amortizazioa prestakuntza-ekintzak irauten duen orduen arabera izango da, eta ordu bakoitzeko kostua enpresaren hitzarmen-orduekin kalkulatu da.

A ADIBIDEA.

40 ordu iraun duen 10. ekintza “FORMACIÓN, SA” enpresaren lantegietan egin da. 2000n, 2.000 m2 dituen industria-pabilioia erosteko eta 2007an beharrezko instalazioak jartzeko (elektrizitatea, ura eta berogailua) 390.648 euroko eta 60.100 euroko inbertsioak egin ziren, hurrenez hurren. Prestakuntza 150 m2-ko gunean egin dela kalkulatu da.

Kalkulua.

INSTALAZIOaren kontzeptuan, kontabilitatean bereiz erregistratzen diren gastuak justifikatzeko aukera ematen du HOBETUZek, honako gastu hauek justifikatzea, hain zuzen ere:

- Eraikinak, hau da, eraikuntza bera. Adibide honetan, inbertsioaren zenbatekoa 390.648 euro da.
- Instalazioak: hainbat elementu, hala nola makinak, materialak, eraikuntzak, etab., funtzionatzeko behin betiko lotura dutenak (instalazio elektrikoak, erregai-instalazioak, etab.). Adibide honetan, inbertsioaren zenbatekoa 60.100 euro da.

Urteko amortizazio-koefizienteen taularen arabera, honako koefiziente hauek ditugu:

ELEMENTUAK	Urteko gehieneko koefizientea
Industria-erabilerarako eraikin eta pabilioiak	5
Instalazioak	15

Amortizazio gisa adierazten diren kopurueterako HOBETUZek ezarritako eskakizunen arabera, amortizazioak ez dira zergei dagokienez onartzen direnak baino handiagoak izango, eta urteko gehieneko amortizazio-koefizientearen arabera kalkulatu dira. Gure kasuan: % 5 lantegiako eta % 15 instalazioetarako.

Koefiziente horiek kontuan hartuta, gehieneko amortizazioaldiak honako hauek izango dira: 20 urte eraikinetarako eta 6'67 urte instalazioetarako. Kasu honetan, enpresa bi kontzeptuetarako onartutako amortizazioaldiaren barnean dago (lantegia orain dela 10 urte erosi zuen eta instalazioak orain dela 3 urte).

Hortaz:

$390.648 \times 0'05 = 19.532'4$ euro da lantegiaren urteko amortizazio gisa onartzen den gehieneko kopurua.

$60.100 \times 0'15 = 9.015$ euro da instalazioen urteko amortizazio gisa onartzen den gehieneko kopurua.

Prestakuntza 150 m²-ko gunean egin dela kalkulatu dela kontuan izanik:

Lantegiari dagokionez:

$$19.532'4 : 2.000 = 9'76 \text{ euro/m}^2$$

$$9'76 \times 150 = \mathbf{1.464 \text{ euro.}}$$

Instalazioei dagokienez:

$$9.015 : 2.000 = 4'5 \text{ euro/m}^2$$

$$4'5 \times 150 = \mathbf{675 \text{ euro}}$$

Enpresaren hitzarmen-orduak 1.750 badira (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZi jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da), ekintza horretarako instalazioen amortizazio gisa egotz daitekeen euro kopurua honela kalkulatu da:

Lantegirako:

$$1.464 : 1.750 = 0'83 \text{ euro/ordu.}$$

$$0'83 \times 40 \text{ ordu (erabilpen-orduak)} = \mathbf{33'20 \text{ euro.}}$$

Instalazioetarako:

$$675 : 1.750 = 0'38 \text{ euro/ordu.}$$

$$0'38 \times 40 \text{ ordu (erabilpen-orduak)} = \mathbf{15'2 \text{ euro.}}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

F. INSTALAZIOEN AMORTIZAZIOA

EKINTZA ZK.	ELEMENTU AMORTIZAGARRIAREN IZENA	HORNITZAILEA	IFK edo IFZ	ESKURATZE PREZIOA	ESKURATZE DATA	ERABILPEN IRIZPIDEA (ORDU/M ²)	EURO EGOZGARRIAK
10	2.000 m ² -ko pabilioia	Ace, SL	F-9858880	390.648	2000	40 ordu 150 m ²	33'20
10	Inst. Elektrikoa, Ura, Berogailua	Sumi, SA	E-12102140	60.100	2007	40 ordu 150 m ²	15'2

Hurrengo adibidean, enpresak prestakuntzarako erabiltzen duen ikasgela batean egin da prestakuntza-ekintza (**betiere prestakuntza ez bada enpresaren jarduera**). Kasu honetan, **baldin eta prestakuntza-gela horretako inbertsioaren nondik norakoak bereiz erregistratzen badira**, ez da beharrezkoa izango erabilitako m² bakoitzeko egozpena egitea. Prestakuntzak iraun duen ordu kopuruagatiko egozpenari dagokionez, ikasgela hori erabili den ordu kopuruaren arabera kalkulatu du enpresak ordu bakoitzeko kostua, eta ordu kopuru hori **ez da izango hitzarmen-orduen erdiak baino txikiagoa**.

B EREDUA.

50 orduko iraupena izan duen 16. prestakuntza-ekintza "FORMACIÓN, SA" enpresak hartarako duen ikasgela batean egin da. Inbertsioa orain dela 3 urte egin zuen eta haren zenbatekoa 30.050 euro izan zen. Inbertsio hori enpresatik gertu dagoen lokal bat erosteko egin zen.

Kalkulua.

Urteko amortizazio-koefizienteen taularen arabera, honako koefiziente hauek ditugu:

ELEMENTUAK	Urteko gehieneko koefizientea
Industria-erabilerarako eraikin eta pabilioiak	5

Amortizazio gisa adierazten diren kopuruetarako HOBETUZek ezarritako eskakizunen arabera, amortizazioak ez dira zergei dagokienez onartzen direnak baino handiagoak izango, eta urteko gehieneko amortizazio-koefizientearen arabera kalkulatu dira. Gure kasuan: 5%.

Horrez gain, koefiziente hori kontuan izanik, gehieneko amortizazioaldia 20 urtekoa izango da. Kasu honetan, enpresa onartutako amortizazioaldiaren barnean dago, lokala orain dela 3 urte erosi baitzuen.

Hortaz:

$$30.050 \times 0,05 = 1.502,5 \text{ euro da urteko amortizazio gisa onartzen den gehieneko kopurua.}$$

Enpresak kalkulatu du urtean 900 bat orduz erabiltzen dela ikasgela.

Ordu horiek justifikatzeko, HOBETUZi aurkezten diozun dokumentazioari erants iezaiozu ordu kopuru horren zergatia eta ekintza horri egotz dakiokeen euro kopurua nola kalkulatu duzun azaltzeko idatzi bat.

Horren arabera:

$$1.502,5 : 900 = 1,67 \text{ euro/ordu.}$$

$$1,67 \text{ (orduaren kostua)} \times 50 \text{ (ekintzaren iraupena)} = \mathbf{83,5 \text{ euro}}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitortpenean honako informazio hau bildu behar da:

F. INSTALAZIOEN AMORTIZAZIOA

EKINTZA ZK.	ELEMENTU AMORTIZAGARRIAREN IZENA	HORNITZ.	IFK edo IFZ	ESKURATZE PREZIOA	ESKURATZE DATA	ERABILPEN IRIZPIDEA (ORDU/M ²)	EURO EGOZGARRIAK
16	Prestakuntzarako lokala	Ace, SL	F-9858880	30.050	2007	50 ordu	83'5

3. adibidea.

40 orduko iraupena duen 1. prestakuntza-ekintza gauzatzeko, 5 ordenagailu erabili dira, denak ere planaren titularra den "FORMACIÓN, SA" enpresarenak. Horietako bi 2002an erosi zituen enpresak, eta bakoitzaren prezioa 1.652 euro izan zen. Beste hirurak 2008an erosi zituen, eta bakoitzaren prezioa 1.352 euro izan zen. Prestakuntza-ekintza 4 aldiz egin da (4 talde).

Kalkulua.

Urteko amortizazio-koefizienteen taularen arabera, honako koefiziente hauek ditugu:

ELEMENTUAK	Urteko gehieneko koefizientea
Ekipo informatikoak	25

Urteko koefizientea kontuan izanik, gehieneko amortizazioaldia 4 urte da; beraz, ezin da amortizatioagatik gasturik egotzi erabilitako 2 ordenagailuri dagokienez, 2000n erosiak baitira (orain dela 9 urte).

Gainerako ordenagailuei dagokienez, guztizko kostua 4.056 euro izan zen (1.352 euro x 3).

Amortizazio gisa adierazten diren kopuruetarako HOBETUZek ezarritako eskakizunen arabera, amortizatioak ez dira zergei dagokienez onartzen direnak baino handiagoak izango, eta urteko gehieneko amortizazio-koefizientearen arabera kalkulatu dira. Gure kasuan: 25%.

Hortaz: $4.056 \times 0.25 = 1.014$ euro da urteko amortizazio gisa onartzen den gehieneko kopurua.

Ordenagailuen erabilera hau izan da:

40 ordu (ekintzaren iraupena) x 4 talde (ekintza zenbat aldiz egin den) = 160 ordu.

Enpresaren hitzarmen-orduak 1.750 badira (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZi jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da), ekintza horretarako ekipamenduen amortizazio gisa egotz daitekeen euro kopurua honela kalkulatu da:

$1.014 : 1.750 = 0'58$ euro/ordu.

$0'58$ (orduaren kostua) x 160 ordu (erabili diren orduak) = 92'8 euro.

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

G. EKIPAMENDUEN AMORTIZAZIOA

EKINTZA ZK.	ELEMENTU AMORTIZAGARRIAREN IZENA	HORNITZAILEA	IFK edo IFZ	ESKURATZE PREZIOA	ESKURATZE DATA	ERABILPEN IRIZPIDEA (ORDUAK)	EURO EGOZGARRIAK
1	3 ordenagailu	DICO, SL	E-487383680	4.056	5/2/2008	160 ordu	92'8

4. adibidea

Prestakuntza-plana gauzatzeko, “FORMACIÓN, SA” enpresako langile eta prestakuntza-planaren kudeaketaren arduradun Felipe Lasa Miguel-ek hainbat jarduera egin du. Ekintza jakin baterako zaila izan zen nork emango zuen aurkitzea; izan ere, prestakuntza oso espezifikoa zen eta enpresaren problematikarekin guztiz bat etorri behar zuen. Gainera, beste prestakuntza-ekintza batean inplikaturik dauden enpresako lau departamentuak koordinatu behar izan zituen arduradunak. Lasa jaunak kalkulatu duenez, jarduera horietan 24 lan-ordu eman ditu.

Kalkulua.

Lehenik eta behin, Lasa jaunaren urteko lansari-kostu gordina kalkulatu dugu:

Urteko lansari gordina	22.537
Enpresaren kargurako urteko Gizarte Segurantzza	7.166
URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	29.703 €

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, langile hori kontratatuta edukitzeagatikoa kostua urteko lansari-kostu gordinaren eta hitzarmen-orduen arteko zatiketa izango da:

$$29.703 : 1.750 = 16'97 \text{ euro/ordu}$$

Dedikazio-orduak 24 izan direnez geroz, barne-kudeaketa gisa planari egotz dakioken euro kopurua hau da:

$$16'97 \times 24 = 407'28 \text{ euro}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

I. BARNE KUDEAKETAREN KOSTUA

IZEN-ABIZENAK	IFZ	EMANDAKO ORDUEN KOP.	GARATUTAKO JARDUERAK	URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	EURO EGOZGARRIAK	EKITALDIA
Asier Lasa Serrano		24	Hornitzailea bilatzea. Departamentuen koordinazioa.	29.703	407'28	

5. adibidea.

32 orduko 5. prestakuntza-ekintzan “FORMACIÓN, SA” enpresako departamentu teknikoko 12 langilek hartu dute parte. Prestakuntza asteartero eman da 8 astez eta lau orduz egun bakoitzean. Ordu horien erdiak lanaldiaren barnean egin dira.

Kalkulua.

Gastu gisa egotz ditzakegun orduen kopurua lanaldiaren barnean egindako ordu kopurua da, hau da, 16 ordu.

Kontzeptu horretan egotz daitekeen euro kopurua kalkulatzeko, lehenik eta behin PARTE HARTZAILE GUZTIEN URTEKO LANSARI GORDINA kalkulatu behar dugu. 12 parte-hartzaileak honela sailka ditzakegu:

Urtean 23.454 euroko lansari gordina duten 6 langile
Urtean 30.585 euroko lansari gordina duten 2 langile
Urtean 25.241 euroko lansari gordina duten 4 langile

**URTEKO
LANSARI
GORDINA**

140.724
61.170
100.964

GUZTIRA: 302.858

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, ordu bakoitzeko kostua honela kalkulatzen da:

$$302.858 : 1.750 = 173 \text{ euro/ordu.}$$

Orain, ordu egozgarrien kopuruaz biderkatu behar dugu prezio hori:

$$173 \times 16 = 2.768 \text{ euro.}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

J. PARTE HARTZAILEEN SOLDATAK ETA LANSARIAK

EKINTZA ZK.	EURO EGOZGARRIAK
5	2.768

6. adibidea.

32 orduko 5. prestakuntza-ekintzan "FORMACIÓN, SA" enpresako departamentu teknikoko 12 langilek hartu dute parte. Prestakuntza asteartero eman da 8 astez eta lau orduz egun bakoitzean. Ordu horien erdiak lanaldiaren barnean egin dira.

Kalkulua.

Gastu gisa egotz ditzakegun orduen kopurua lanaldiaren barnean egindako ordu kopurua da, hau da, 16 ordu.

Kontzeptu horretan egotz daitekeen euro kopurua kalkulatzeko, lehenik eta behin PARTE HARTZAILE GUZTIEN ENPRESAREN KARGURAKO GIZARTE SEGURANTZA kalkulatu behar dugu. 12 parte-hartzaileak honela sailka ditzakegu:

**ENPRESAREN KARGURAKO
URTEKO GIZARTE
SEGURANTZA**

Urtean 23.454 euroko lansari gordina duten 6 langile
Urtean 30.585 euroko lansari gordina duten 2 langile
Urtean 25.241 euroko lansari gordina duten 4 langile

44.750
19.452
32.108

GUZTIRA: 96.310 = euro

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, ordu bakoitzeko kostua honela kalkulatzen da:

$$96.310 : 1.750 = 55 \text{ euro/ordu.}$$

Orain, ordu egozgarrien kopuruaz biderkatu behar dugu prezio hori:

$$55 \times 16 = 880 \text{ euro.}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

J. PARTE HARTZAILEEN ENPRESAREN KARGURAKO GIZARTE SEGURANTZA

EKINTZA ZK.	EURO EGOZGARRIAK
5	880

7. adibidea.

20 orduko 9. prestakuntza-ekintzan 24 parte-hartzaile izan dira, bi taldetan banatuta. “FORMACIÓN, SA” enpresak plantillako langile guztientzat pentsio-plan bat kontratatuta dauka.

Kalkulua.

Enpresak 24 parte-hartzaile horien pentsio-planerako urtean egiten duen ekarpena 6.000 euro da.

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, ordu bakoitzeko kostua honela kalkulatzen da:

$$6.000 : 1.750 = 3'42 \text{ euro/ordu.}$$

Orain, ordu egozgarrien kopuruaz biderkatu behar dugu prezio hori:

$$3'42 \times 20 = 68'4 \text{ euro}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitopenean honako informazio hau bildu behar da:

L. PENSIO PLANAK

EKINTZA ZK.	URTEKO EKARPENA	ONURADUNEN KOP.	EURO EGOZGARRIAK
1	6.000	24	68'4

8. adibidea.

12. prestakuntza-ekintzan “FORMACIÓN, SA” enpresaren beste lantoki bateko 5 parte-hartzaile izan dira. Hortaz, 5 langile horiek dietei dagozkien gastuak aurkeztu eta kobratu dituzte.

Kalkulua.

Garraio eta bazkarietarako gastuen zenbatekoa 252'42 euro da, eta gastu horiek behar bezala dokumentatu eta justifikatu dira.

Informazio hori kontuan izanik, enpresaren prestakuntza-arduradunak gastu hori justifikatzeko dagokion zinpeko aitortpena beteko du:

M. OSTATUA, MANTENUA ETA JOAN-ETORRIAK

EKINTZA ZK.	EURO EGOZGARRIAK
12	252´42

9. adibidea.

“FORMACIÓN, SA” enpresako departamentu teknikoaren arduradunak 14. ekintza emateko eskuliburuak prestatu ditu. Horretarako, 32 ordu inguru eman dituela kalkulatu du.

Kalkulua.

Lehenik eta behin, departamentu teknikoaren arduradunaren urteko lansari-kostua kalkulatu behar dugu.

Urteko lansari gordina	31.552
Enpresaren kargurako urteko Gizarte Segurantza	10.034
URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	41.586 = euro

Enpresaren hitzarmen-orduen kopurua 1.750 ordu da (enpresak hitzarmen propiorik ez badu edo HOBETUZI jakinarazten ez badio, sektoreko hitzarmena aplikatuko da); hortaz, ordu bakoitzeko kostua urteko lansari-kostu gordinaren eta hitzarmen-orduen arteko zatiketa izango da:

$$41.586 : 1.750 = 23.76 \text{ euro/ordu.}$$

32 orduko dedikazioa izan duenez gero, horri material didaktikoak prestatzeagatik prestakuntza-ekintza horri honako zenbateko hau egotz dakiok:

$$23´76 \times 32 = \mathbf{760´32 \text{ euro}}$$

Gastu hori justifikatzeko aurkezten den zinpeko aitorpenean honako informazio hau bildu behar da:

N. MATERIAL DIDAKTIKOAK PRESTATZEAGATIKO GASTUAK


EKINTZA-ZK.	IZEN-ABIZENAK	IFZ	EMANDAKO ORDUEN KOP.	URTEKO LANSARI KOSTU GORDINA	EURO EGOZGARRIAK
14	Aitor Goitia Atienza		32	41.586	760´32

3. FAKTURAK

Lehen adierazi dugunez, fakturekin lan egiteko bi modu dituzu aplikazioan:

1. Bata, planean egotzi beharreko faktura guztiak sartu eta ondoren faktura horiek ekintza eta gastu-kontzeptu bakoitzari egozte. “Facturak” aukeraren bidez, fakturei alta eman ahal izango diezu, baita fakturak editatu eta ezabatu ere. Fakturaren bat prestakuntza-ekintzaren bati egotzi bazaio, aplikazioak ez dizu faktura hori ezabatzen utziko.
2. Bestea, beharra sortu ahala fakturei ekintza eta gastu-kontzeptu bakoitzean alta ematea. Lehen adierazi dugunez, hori “Ekintzen justifikazioa” aukeraren bitartez egin behar da.

4. PLANAREN DOKUMENTAZIOA



Aukera horren bitartez, prestakuntza-planari nahiz plan hori osatzen duten prestakuntza-ekintzei buruzko dokumentuak zuzenean bidal daitezke inprimagailura.

Enpresa Taldeen planen kasuan, goiko pantailan bistaritzen dituzenez gain, Partaidetza-konpromisoak inprimatzeko aukera ere agertuko da. Eskaeran aurkeztu ez zenuen konpromisoren bati alta eman badiozu soilik erabili behar duzu aukera hori.


Planaren Memoria:

- Azala, espediente-zenbakia eta prestakuntza-planaren titularra identifikatuta.
- Kontrol-orria (bi ale: bata Hobetuzentzat eta bestea titularrarentzat). Aurkezten duzun dokumentazioa markatu beharko duzu.
- Prestakuntza-planaren titularraren datu orokorrak, Legezko Ordezkarria, harremanetarako persona eta dagokion hitzarmen kolektiboa adierazita.
- Egindako ekintzei eta sortutako gastuei buruzko ziurtagiria. Dokumentu horretan, honako alderdi hauek ziurtatzen dira:
 - Ekintzak HOBETUZI alde aurretik jakinarazitakoaren arabera eta 2008ko deialdiaren oinarriak betez egin dira.
 - Parte hartu izanari buruzko ziurtagiriak eman dira eta horiek jaso izanaren egiaztagiriaren kopia gorde da.
 - Prestakuntza-ekintzak doakoak izan dira langileentzat.
 - Ez dago diru-laguntzak itzultzera behartzen duen ezein prozeduraren eraginpean.
 - Prestakuntza-plan horretarako ez da lanbide-prestakuntzako kuoten bidezko finantziatorik eskatu, ezta jaso ere.
 - Informazioa berrikusi da eta horrekiko adostasuna adierazten da.
 - BEZari buruzko egoera.

Ziurtagiri hori enpresaren legezko ordezkariak sinatu beharko du. Sinadurak orijinala izan behar du, eta haren ordezkari ezin izango da zigilatu duen sinadurarik erabili, ezta beste pertsona baten sinadura ere, pertsona horrek “baimenduta” edo “ahalordetuta” sinatu dela jarrita ere.

Prestakuntza Ekintzak.

“Noiztik” eta “Noiz Arte” laukitxoek inprimatu nahi den ekintza-tartea adierazten dute, baita ekintza horien ordena-zenbakia ere.



Selección - Diálogo Web

Txosten bat hautatu behar da: Pres. Ekintzak

Noiztik: Noiz Arte:

En el caso de tener más de 30 Acciones Formativas, éstas deberán imprimirse en lotes de 30.

Ekintza bakoitzeko dokumentu bat inprimatuko da; bertan, prestakuntza-ekintza bakoitzaren izena, espezialitatea eta iraupena agertuko dira.

Zinpeko Aitorpenak.

Aplikazioak zinpeko aitorpen guztiak inprimatuko ditu, bertan eskatzen den informazioa beteta izan alaez, eta guztiak honako testu hau izango dute:

ZINPEKO AITORPENEA

..... JAUNAK/ANDREAK, ERAKUNDE TITULARREKO LEGEZKO ORDEZKARIA DEN ALDETIK, HONAKO DATU HAUEK PRESTAKUNTZA PLANA GAUZATZEKO SORTUTAKOAK DIRELA ADIERAZTEN DU; HALABER, ADIERAZTEN DU DATU HORIEN EGIAZTAGIRIAK NAHIZ DATUOK FROGATZEKO DOKUMENTUAK HOBETUZ LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOAK NAHI DUENEAN ESKURATU AHAL IZANGO DITUELA, ESKATZEN BADIZKIO.

ETA HORRELA AGER DADIN,.....

Zinpeko aitorpenak gastua frogatzeko dokumentuak dira, eta, beste ziurtagirietarako adierazi denez, enpresaren legezko ordezkariak sinatu eta zigilatu beharko ditu. Sinadurak orijinala izan behar du, eta haren ordezkari ezin izango da zigilatu duen sinadurarik erabili, ezta beste pertsona baten sinadura ere, pertsona horrek “baimenduta” edo “ahalordetuta” sinatu dela jarrita ere.

Planeko Gastuen Laburpena.

Txosten horretan, aplikazioan betetako informazio ekonomiko guztiaren laburpen-taula biltzen da, prestakuntza-ekintzaren eta gastu-kontzeptu guztien arabera.



2009ko Deialdia

ESPEDIENTE ZK.: 2009/M/9999/EN

GASTUEN LABURPENA (1)

IZENA	A	B	C	D	E	Fa	Fb	Ga	Gb	H	Total (A-H)
	KANPOKO ZERB.	BARNEKO IRAKAS.	MAT. SUNTZIG.	MAT. DIDAKT.	ISTRIPU ASEG..	INSTAL. AMORT.	INSTAL. ALOKAIK.	EKIP. AMORT.	EKIP. ALOKAIK.	GARRAIOA, OSTATUA, MANTENUA	
2-MANIPULACION CARRETILLA ELEVADORA CON SPREADER	450,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	450,00
	450,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	450,00

GASTUEN LABURPENA (2)

IZENA	J	K	L	M	N	O	Total (J-O)	Total Acción Formativa
	PARTEHAR. SOLDATAK	G.S. ENPRESAREN KARGURA	PENTSIO PLANAK	OSTATUA, HAZKURRIA, GARRAIOA	IRAKAS. MAT. PRESTAKUNTZA	BESTELAKO GASTUAK		
2-MANIPULACION CARRETILLA ELEVADORA CON SPREADER	2.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.500,00	2.950,00
	2.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	2.500,00	2.950,00

Barruko kudeaketako kostua	145,00
Kanpoko kudeaketako kostua	2.050,00
PLANAREN KOSTUA, GUZTIRA	5.145,00

HOBETUZ - 2009ko Memoria

Fakturen zerrenda.

Txosten horrek prestakuntza-planari egotzi dizkiozun faktura guztiak ordenatuta aurkezten dizkizu. Plana itxi eta dokumentazioa aurkeztu baino lehen, egiazta ezazu informazio guztia zuzena dela.



2009ko deialdia

ESPEDIENTE ZK.: 2009/M/9999/EN

AURKEZTUTAKO EGOZPEN ETA FAKTUREN ZERRENDA

EKINTZA-ZK.	IZENA	KONTZEPTUA	FAKTURA ZK.	HORNITZAILEA	FAKTURATUTAKO ELEMENTUAK	EGOTZITAKO ZENBATEKOA
		Kanpoko kudeaketako kostua	asdasda	asdasd		2.050,00
2	MANIPULACION CARRETILLA ELEVADORA CON SPREADER	Kanpoko prestakuntza	asdasda	asdasd		450,00
2	MANIPULACION CARRETILLA ELEVADORA CON SPREADER	Material suntsikorra	asdasda	asdasd		2.000,00

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU GEHIGARRIAK.

Aplikazio informatikoaren bidez sortzen den dokumentazioaz gain (dokumentazio hori inprimatu eta legezko ordezkariak hala dagokionean sinatu eta zigilatu beharko du), kontuan izan honako dokumentu hauek ere aurkeztu behar dituzula:

- Ziurtagiri eguneratuak (egiten direnetik 6 hilabeteko balio-epea dute) eta Foru Ogasunei, Gizarte Segurantzari eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Entitateari dagokienez erakunde titularrak duen egoerari buruzko dokumentuen orijinalak edo fotokopia konpultsatuak.
Gizarte Segurantzaren RED sistemaren bitartez lortutako ziurtagirietan, berriz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak ziurtagiri horiek egiteko emandako baimenaren titularren sinadura orijinala bildu beharko da.
- Dokumentazioa sinatu zuen legezko ordezkaria eskaera sinatu zuena ez bada, sinatzaile horrek erakunde titularra ordezkatzeko duen ahalmena egiaztatzen duen notario-ahalardea edo antzeko dokumentu formala aurkeztuko beharko da.
- BEZaren urteko azken aitorten laburtua, betiere hainbanaketa orokorra edo berezia egin bada.
- Estatuko hobari-sistemak prestakuntzarako ezarritako kredituaren kontsumoari buruzko egoera: Fundación Tripartita erakundearen web-orritik inprimatutako kredituaren jakinarazpenaren/saldoaren kopia, enpresaren legezko ordezkariak sinatua eta zigilatua. Enpresa Talde bat bada, Planean parte hartutako enpresa bakoitzaren kopia erantsi behar da.

Halaber, aplikazioan EAetik kanpo langileak dituela baieztatzeko aukera adierazi bada, taldeko enpresa bakoitzak kontsumitutako kreditu zatia biltzen duen zerrenda erantsi beharko da.

- Prestakuntza-ekintza guztiei egotzitako fakturen fotokopia arruntak.